

2010 -11 IKASTURTEKO LEHEN UDAL KIROL KONTSEILUKO AKTA:

Eguna: 2010 . eko abenduak 2 a.

Lekua: Kiroldegiko elkarte eta taldeentzako aretoa.

Iraupena: 19:15 – 20:10

PARTE HARTZAILEAK:

- Alain Isasa Kenpo Kai Kirol Elkarte
- Kristina Brit OKISAko arduraduna
- Xabier Salaberria Hautzaro Kirol Elkarte (Atletismo)
- Mitxel Gaztelumendi Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarte
- Eva Elizalde Herri Eskola (Eskola kirola)
- Jose Ignacio Oiartzun K.E.
- Joxean Oiartzun K.E.
- Imanol Girizia Mendozale Elkarte
- Egoitz Power Rangers areto futbola
- Eki Power Ranger areto futbola
- Eskarne Txost
- Igor Oiartzun Saskilagunak S.K.T.
- Donibane Azkarate Eskola Kirola eta Udal Kirol Kontseiluko koordinatzailea
- Jokin Sukuntza Gazteria eta Kirol Teknikaria
- Karmele Irastorza Gazteria eta Kirol Zinegotzia

1. Aurreko aktaren oniritzia

Aurreko akta onartu egiten da, inork zehaztapenik ez zuela konprobatu ondoren.

2. Diru laguntza eta data basea

Diru-laguntzak

Udal Kirol Kontseiluko koordinatzaileak, funtzionamendu gastuetarako diru-laguntza eskaera aurkeztu duten kirol talde eta elkarten zerrenda irakurtzen du.

Gazteria eta Kirola Saileko zinegotziak, diru-laguntzen, onarpen eta ordaindu arteko prozesuaren deskribapena egiten du. Urte amaiera bitartean, diru-laguntza txikienak ordaintzeko prozedura bideratuko da eta handiagoetan, 50%-ena bideratuko da. Gainontzekoa, urtarrilean zehar ordaintzeko prozedura bideratuko da.

Gazteria eta Kirola Saileko zinegotziak aipatzen du ere, denboraldi honetarako diru-laguntza mantentzeko irizpidea hartu dela. Oiartzun Saskilagun S.K.T. ordezkariak aipatzen du, beraiek, denboraldi honetan bi talde gehiago izanik ea ez den kontutan hartuko. Gazteria eta Kirola Saileko zinegotziak, aurtan, diru-laguntzak mantentzeko irizpidea dagoela eta printzipioz ez dela kontutan hartu horrelako gora-beherarik. Oiartzun K.E.-ko ordezkariak aipatzen du, aurtengo, diru-laguntzen %20ko beherakada ez duela eragin berdina diru-laguntza txikia jasotzen duten talde edo elkarteei edo handiei eta hori hitz-egin beharko dela.

Oarsoaldea Igeriketa Kirol Elkarteko ordezkaria prest azaltzen da, diru-laguntzak banatzerakoan, beste batzuei lehenago ematea beraiei baino.

Datorren denboraldirako, 11/12, Gazteria eta Kirola Sailak, funtzionamendu gastuetarako diru-laguntzen irizpide batzuk martxan jarri nahi ditu eta horretarako, irizpideak zehazteko eramango den parte-hartze prozesuaren berri ematen da. Udalak **oinarrizko irizpideak**, kirol talde eta elkarteen artean zabalduko ditu, hauek hauen berri izateko eta hauen inguruan eta beste berriak proposatzeko aukera eman da. Gazteria eta Kirola Sailak, dituen eta proposatzen diren irizpideak kontutan hartuz, denboraldi honetako azken Udal Kirol Kontseilurako behin betiko irizpideak aurkeztu ditu.

Data basea

Data basea betetzearen garrantzia azpimarratzen du *Gazteria eta Kirola Saileko zinegotziak*, eta ezinbestekoa izango dela datorren urtean diru-laguntza jaso ahal izateko data basean azaltzen diren datuak egunean izateko.

Udal Kirol Kontseiluko koordinatzaileak, azaltzen du nolakoa den prozesua. Mantentzen diren aurreko denboraldiko kirolariak automatikoki gehitzen dira eta berriak *Udal Kirol Kontseiluko koordinatzaileari* pasa behar zaizkio data basean sartu ahal izateko. Elkarte eta taldeak egin behar duten bakarra, denboraldi batetik bestera baja diren kirolariak, datu basearen zerrendetatik borratzea da.

3. Eskola kirola eta eskola pilota

Udal Kirol Kontseiluko koordinatzaileak, datuen aurkezpena egiten du. Eskola kiroleko parte hartzaileen kopuruak gora egin duela dio, bi talde gehiago atera direlarik. Horretaz gain, eskola pilotan gorakada bikoitza izan da, bai taldeei dagokienez, (palako taldeak sortuz bai mutil eta bai nesketan) eta bai parte hartzaileei dagokienez. Guztira, 250 haur inguru mugitzen direla egitasmo hauen barruan aipatu du.

4. Kirol instalakuntzak

Elkarteentzako lokala

Elkarteentzako lokala: *OKISAko arduradunak*, lokala prest dagoela eta erabili nahi dutenak eskaera egin dezaketela aipatzen du. Armairuak, aulkiak eta mahaiak prest daudela eta interneteko konexioa epe motxera ere izango dela azaltzen du. Inprimagailua eta beste ordenagailu bat beheko lokal batean dago, norbaitek erabili nahi baldin badu.

Kiroldegian Saskibaloiko pista berria

Gazteria eta Kirola Saileko zinegotziak komentatzen du, nola OKISA-ren 2011 aurrekontuetan, hirugarren saskibaloiko pista muntatzeko kostua aurreikusi dela eta aurrekontuak onartu ondoren, entrenatzeko hirugarren saskibaloiko pista muntatuko dela 2011 urtean.

Oiartzun Saskilagunak S.K.T.-n ordezkariak, galdetzen du, noizko izango den, eta *OKISAko arduradunak* erantzuten dio, lehenik aurrekontuak onartu behar dituztela eta gero bideratuko dela. Aurreratzen du, otsaila baino lehen ez dela izango.

5. Iradokizunak eta galderak

Kenpo Kai Kirol Elkarteko ordezkariak, bilera amaituta dagoela proposamen bat luzatzen du, ea posible den, herri mailan, denboraldian zehar kirol inguruan aritzen den pertsona/talde batentzat sari bat sortzea. Adibidez, urteko kirolariari, entrenatzaileari, herrian egindako ibilbidearengatik....

